


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA MIGRAZIOA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Ruiz de Velasco Gutierrez, Borja.

ZUZENDARIA: Etxaniz Erle, Xabier.

2019

Eskerrak eman nahiko nituzke Gradu Amaierako Lana egitera lagundu nauten pertsona guztiei, haiek gabe ezin izango nuke horrelako lana burutu. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahiko nizkioke Xabier Etxanizi azalpen argiak eta bidea argi erakusteagatik, niregan konfiantza izateagatik eta eman didan laguntzagatik.

Sara Arratibeli ere eskerrak eman nahiko nizkioke lanaren prozesuan zehar nire alboan egoteagatik eta galduta nengoenean aurrera egitera bultzatu nauelako bere laguntza eta bultzadarekin.

Eskertu nahiko nituzke Erika Risquez-en animoak eta laguntza, partekatu dugun informazioa eta elkarrekin aurrerapausoak. Ane Miren Bernali itzultzaile eta animatzaile lanak egiteagatik

Izan ditudan irakasleei haien bultzada eskertu nahiko nieke, batez ere, Joseba Arregiri, Txabi Arnali eta Edu Zelaietari.

Azkenik, eskerrik asko nire familiari Asier Ruiz de Velascori, Maika Gutierrez eta Manu Ruiz de Velascori eta lagun guztiei hor egoteagatik.

Laburpena: Gizartea aldaketa handia jasaten ari da eta egungo sozietateak nabaritzen du. Euskal Herrian bizi ari garen aldaketa hauen kausa garrantzitsu bat migrazioa da eta elkarbizitzako eta kulturen arteko errespetua izateko garrantzitsua da neurriak hartzea. Fenomeno honi aurre egiteko erreminta garrantzitsu bat haur eta gazte literatura da. Haur eta gazte literaturaren obra asko daude migrazioa gai bezala hartzen dutenak, beraz, esan dezakegu migrazioaren gaia ikuspuntu desberdinetatik azaltzen dela. Lan honetan, haur eta gazte literaturan migrazioaren nondik norakoak aztertu ditugu teoria azalduz eta obra desberdinen azterketak egin eta gero emaitzak eta ondorioak atera ditugu. Azkenik, hobekuntza proposamen batzuk egin ditugu.

Hitz gakoak: haur, gazte, literatura, migrazioa

Resumen: la sociedad está sufriendo un cambio y hoy en día la ciudadanía lo nota. Una de las causas por la que sufrimos este cambio es la migración y para lograr el respeto y la convivencia entre culturas es muy importante tomar medidas. Una herramienta muy importante para hacer frente a este fenómeno es la literatura infantil y juvenil. Muchas obras de literatura infantil y juvenil tienen como tema la migración, por lo tanto, podemos decir que se explica el tema de la migración desde diferentes puntos de vista. En este trabajo hemos explicado la naturaleza de la migración en la literatura infantil y juvenil y después de explicar la teoría y de hacer el análisis de diferentes obras, hemos sacado los resultados y efectos del análisis. Para terminar, hemos hecho unas propuestas de mejora

Palabras clave: niña/o, juvenil, literatura, migración

Abstract: Society is undergoing an important change and it is well-known. One of the principal causes of the change we are noticing in the Basque Country is the migration. So as to coexist and have respect between cultures, it is essential to take measures. An important tool to face this phenomenon is children's and young people's literature. Many works on this literature have migration as theme. Therefore, it can be said that migration is explained from different points of view. In this work, in order to draw the results and conclusions, we have analysed the migration concept in children's and young people's literature by explaining the theory and carrying out an analysis of the different literature works. To conclude, we have done some suggestions for improvement.

Key words: child, young, literature, migration

Key words: child, young, literature, migration

AURKIBIDEA

SARRERA	5
Justifikazioa	6
LANAREN HELBURUA	7
MARKO TEORIKOA	8
Zer da migrazioa?	8
Migrazioaren kausak gizartean	9
Migrazioaren ondorioak herrialde hartzailean	10
Migrazioaren ondorioak jatorrizko herrialdean	11
Ikasle migratzaileen egoera	12
Nola tratatu migrazioaren prozesua eskolan	13
Zein eragin izan du migrazioak haur eta gazte literaturan?	14
Nola eta zer agertu da haur eta gazte literaturan?	15
METODOLOGIA	17
EMAITZAK	18
Lehenengo corpusa:	18
Bigarren corpusa	25
ONDORIOAK	31
ONDORIO OROKORRAK	33
HOBETZEKO PROPOSAMENAK	33
BIBLIOGRAFIA	34
ERANSKINAK	37
Eranskina I	37
Eranskina II	39
Eranskina III	40
Eranskina IV	41
1. korpua	41
2. korpua	67

SARRERA

Urtetan zehar Haur eta Gazte literatura asko aldatzen joan da formatu, idazkera eta gaitegiaren aldetik. Aintzinean ahoz transmititzen zen Haur eta Gazte Literatura, hala ere, liburuetan idatzitako literatura gutxi batzuk eskuratu ahal zituzten. Inprentaren asmakuntzarekin argitarapenak igotzen joan ziren eta piskanaka Haur eta Gazte Literatura globalizatuz joan zen gaur egun arte.

Haur eta Gazte literaturaren hasierako kontakizunetan edo hasierako idazleen artean Charles Perrault, Hans Christian Andersen edota Grimm anaiak zeuden fantasiako obrak idazten zituztenak, ipuin klasikoak (Gutierrez 2018). Ondoren, Christine Nöstlinger, Gianni Rodari edota Astrid Lindgren bezalako idazleak agertu ziren sozietatearen errealitatea islatzen zituztenak XX. mendean. Gaur egun, idazle asko daude arlo desberdinak lantzen dituztenak; adibidez, Euskal Herrian Patxi Zubizarreta, Txabi Arnal edota Miren Agur Meabe daude egungo sozietatearen isladapena modu eder eta erakargarri batean kontatzen digutenak.

Lehen aipatutako XX. mendeko idazleak sozietatean gertatzen zenaren informazioa jakitera eraman zuten helduei eta gazte eta haurrei; adibidez, Astrid Lindgren idatzitako *Pipi Kaltzaluze* edota Christine Nöstlingerrek idatzitako *Konrad, edo kontserba lata batetik atera zen haurra* liburuetan hezkuntza, adopzioa, migrazioa eta errealitatean gertatzen diren hainbat gai gehiago jorratzen dituzten istorioak dira. Gaur egungo autore askok ere jorratzen dituzte gai hauek.

Lan honetan literaturaren barnean migrazioaren gaian murgilduko gara eta gai honen barruan arlo desberdinak aztertuko ditugu. Horretarako, marko teoriko baten bidez informazioa jasoko dugu, ondoren, ikerketa bat egingo dugu obra literario desberdinak aztertuz, eta azkenik, behin azterketaren emaitzak izanda ondorioak aterako ditugu.

Justifikazioa

Orain bizi ari garen aldaketa soziala nabaria da, Euskal Herrian etorkinen tasa denbora gutxian handitu egin da eta horrekin batera, aurreiritzien, arrazismoaren eta ezjakintasunaren tasa ere. Hala ere, badago ezjakintasun hori ekiditeko hainbat informazio eta hainbat erreminta. Dena den, askotan aurkitzen dugun informazioa manipulatu dago, ez da fidagarria eta behar ez diren ideiak zabaltzen dira.

“Hedabidetatik esplizituki eta, batik bat, subliminalki iristen zaigun informazioa zehatza da oso: mairuak, etorkinak, errefuxiatuak, zuriak ez bestek... horra gaur egungo ogroak” (Zubizarreta 2016). Patxi Zubizarretak gaur egungo prentsa kritikatzeko du, migrazioaren gaiaren inguruan manipulazioak daudela eta etorkinak baztertzen dituztela adierazten du. Zubizarretak (in A. Maaloufe, 2016) aurretik aipatutakoaren haritik, sozietatea nahastu eta aztoratu egiten duela gizateria aldatuz: akitua, zauritua, traumatizatu gertatuko dela helarazten du.

Orain bizi garen sozietateentzat banakako guztien kultura, jatorria eta aniztasunaren islapen berria sortzeko hezkuntza erreminta oso garrantzitsua da literatura (Colomer, 2008). Hau da, aniztasunaren isladapena aurkezteko modu berri bat da literatura eta hori Teresa Colomerrentzat hasiera puntu bat da. Azken urte hauetan eskolaren ingurugiroa asko aldatu egin da eta hori erronka berriak dira hezkuntzarentzat eta literaturarentzat.

Migrazioaren gaien murgilduz, haur eta gazte etorkin baten irakurketa, haren herrialde berrian jaiotako haur baten berdina izan behar da, hau guztia guztiontzako errespetua, onartzea eta hezkuntzaren kalitatearen premisarako. Hau lortzeko, hurrei eskolan bere liburuak ateratzeko aukera eman behar zaie eta beraien jatorriaren, istorioen, ingurugiroaren eta familien inguruan hausnartzeko. Beharrezkoa da irakasleak migrazioaren inguruko hainbat obra ezagutzea bai eta gai hau ikuspuntu desberdinetatik lantzen dituztenak, (Londoño in Bellorín, 2017).

Leku berrirako etorrerak aldaketa psikologiko handia sorrarazten dio etorkinari, beldurraren sententzia, bakardadea eta nostalgia baldintzatuko du lekuarekiko nahiz han bizi diren pertsonetikiko erlazioan (Harold 2013). Beraz, etorkinek sentitzen duten nostalgia, bakardadea eta beldurra baretzeko ezinbestekoa da haiekiko empatia izatea eta haiek ulertuak sentitzea. Hori lortzeko bide garrantzitsu bat da literatura.

Honen ildotik, literatura bestearekin erlazionatzea dakar eta leku desberdinetatik interpretatzeko aukera ematen du, mundua interpretatzeko balio du. Bizikidetzarako oinarritzakoa den erreminta da. (Bellorín, 2017).

Hau jakinda, migrazioaren aurreiritziak deuseztatzeko, herrialde berrietara datozen haur eta gazteekin enpatia izateko, immigratzen duten pertsonak Euskal Herrian jaio eta bizi diren pertsonekin hezkidetzan elkarri eragiteko eta literaturaren barruan migrazioaren gaia nola lantzen den jakiteko egindako lana izango da.

LANAREN HELBURUAK

Haur eta gazte literatura denborarekin aldatuz joan da gizartea aldatuz joan den heinean. Literaturan agertzen diren gaiak sozietateari egokituak daude eta arlo desberdinak jorratzen dituzte hartzailleak istorioarekin identifikatua sentitzeko eta gozatzeko. Oraingo literaturan ez dira aitzinean agertzen ziren maitagarrien ipuinak bezala, oraingo literaturan gai deserosoak, tabuak diren gaiak eta gai gogorrak lantzen dituzten obrak ere badaude; horietako gaien artean migrazioa daukagu.

Euskal Herrian XXI. mendean izan dugun gizartearen aldaketa nabaria izan da, izan ere, migrazioaren tasa handitu egin da, beraz, hezkuntza arloan ere beste leku batetik etorritako haur eta gazteen aldaketa nabaria izan da. Beraz, eskoletan ematen den hezkuntzaren moldaketak egon behar dira fenomeno honi aurre egiteko modu egoki batean.

Gizartea eta gizartearen barnean dagoen hezkuntzarentzat ezinbestekoa da migrazioaren kontzeptua jakitea eta horrek dakarrena. Horretarako, haur eta gazteen egoera, egoera horretara eraman dituzten kausak eta kausa horiek sortu ahal ditzaketen ondorioak jakitea egokia litzateke. Behin hau jakinda, eskoletan egoera horiei aurre egiteko zer nolako trataera egon beharko litzatekeen jakitea beharrezkoa litzateke.

Aurrekoa kontuan hartuz eta haur eta gazteen egoera ikusita, literaturak asko lagundu dezake izan ditzaketen zailtasunak arintzeko prozesuan. Dena den, nola tratatzen da migrazioa haur eta gazte literaturan? Zer agertzen da migrazioaren gaia barne hartzen duten obra literarioetan?

Galdera hauek guztiei erantzuna bilatzeko eta aurretik aipatutakoa argitzeko haur eta gazte literaturaren ikerketa bat egingo dugu. Ikerketa honetan ikusiko ditugu migrazioaren nondik norakoak haur eta gazte literaturan. Ikerketa honek ematen dituen prozesuaren ekarpenak baliagarriak eta erabilgarriak izango direlakoan egingo dugu lan hau.

MARKO TEORIKOA

Zer da migrazioa?

Migrazioa gizakiaren izaera nomadari erantzuten dion fenomeno dela esan daiteke. Historikoki bizirik irauteko egiten ziren erreminten eta errekurtsoen bilaketak, hedadura handiko lur zabalak zeharkatzera behartu zuen gizakia. Fenomeno hau magnitude handian eman zen, eta horren inguruan (Sutcliffek in Harold, 2013) aipatu zuen herri mundial guztiak aitzinean eman diren migrazioaren emaitza direla.

Makro mugimendu hauen inguruan, P. Albitek (2008:34) esan zuen:

Mende aldaketa honetan munduan gertatzen ari diren aldaketa ekonomiko, politiko eta kultural bortitzek agerian utzi dute, planetaren «iparraldean» zein «hegoaldean», gure planetan gauzatzen ari den kultura-aniztasuna handia eta garrantzitsua dela.

Ondorioz, aniztasunak aldaketak dakartza gure gizartean eta beraz, hezkuntzan.

Migrazioaren barne prozesuan kulturak influentzia handia dauka. P. Albitek (2008) esaten du kultura terminoak zibilizazio oso batek dituen balioak direla. Balio horiek anitzak badira multikulturalismoak hartzen du parte; RAEk kultura-aniztasuna kultur desberdinen bizikidetzeta dela adierazten du, beraz, multikulturalismo horren barruan migrazioak daukan influentzia nabarmena izan da historian zehar eta gaur egun. Kultur aniztasunarekin bat egiten duen kontzeptua kultur artekotasuna da, berdintasun edo ekitate errearen alde borroka egiten duen burujabetze tresna, arlo kulturean, azalekoan eta materialean (Alavez, 2014).

Aurreko guztia kontuan hartuz, Tizónek (in Micolta 2005) migrazioa honela definitzen du; estatu edo eskualde batetik beste batera lekualdatzen den jendea da, betiere, desberdina eta urrunekoa bada. Migratzen duenak, lekualdatutako estatu edo eskualdean, ohiko bizitzan egiten diren ekintzak egiten ditu eta han bizi dela inplikatzeko duen denbora tartean instalatu behar da migrante bezala kalifikatzeko. Denbora tarte hori ez dago finkatuta, dena den, banku mundialak urte baterako erresidentzia edukitzea zehazten du (Gómez, 2010).

Migrazioarekin jarraituz, emigrazioa eta immigrazioa barne hartzen duen prozesua da eta termino hauek definitzea migrazio hitza ulertzeko ezinbestekoa dela esan daiteke. Jaioterria uzten duena atzerrian kokatzeko emigrante hitzari erantzuten dio, aldiz, immigrantearen kasuan, atzerrian dagoen estatu edo eskualde batera

ailegatzen dena da. Beraz, migrazio hitza zuzena da aurretik azaldutako bi kontzeptuei buruz hitz egiterako orduan (Quirós, 2018).

Migrazioaren kausak gizartean

Ekonomistak prestatuta daude gobernuari aholkatzeko eta migrazioaren kausak aztertzeko herrialde hartzaileetan nahiz jatorrizkoetan. Hala ere, publikoari kezka sortzen dion migrazio mundialaren mugatzaileei buruz hitz egiterako orduan ez daukate hainbeste prestakuntza (Hatton eta Williamson, 2004).

Fenomeno honen inguruan, akordio bat existitzen da non esaten den globalizazio mundiala handitu egiten ari dela Bigarren Mundu Gerraren ondorengo mende erdian. Globalizazio handitasunaren kontsiderazio hau, migranteei esker, nazioarteko mugen bitarteko faktorek eta ondasunen mugikortasuna aurrekaririk gabeko goratasun berriak ekarri dutela esan nahi du. Edonola ere, gerta daiteke faktore eta ondasunen nazioarteko mugikortasun hori orain dela mende batekoa bezain handia ez izatea (Hatton eta Williamson, 2004).

Aurretik aipatutako globalizazioaren goratasuna kontuan hartuz, esan daiteke lekualdaketa internazional hauek fenomeno sozialengatik (politikoak, ekonomikoak, kulturalak, hezkuntzakoak, erlijiosoak, eta abar) eta fenomeno naturalengatik (urakanak, lurrikarak, eta abar) gertatzen direla (Quirós, 2018). Fenomeno hauen ondorioz, egoera desberdinak ematen dira; badaude guden errefuxiatuak, diktadura batetik alde egin nahi dutenak, dena arriskatzen dutena bizi kalitate hobe bat bilatzeko eta abar (Grijelmo, 2018).

2012. urtean Biztanleriako Nazio Batuen Funtzak adierazten zuen nazioartean eta barneko mailan, migrazioaren kausa nagusien artean hauek nabarmentzen direla: familia nahiz banakakoaren bizi kalitate hobe baten bila joatea; herrialde batean edo herrialde desberdinen sartze desberdinengatik; jatorrizko eta helmugako estatuen lan eta migrazio politikarengatik; gatazka politikoengatik; ingurumen naturalaren degradazioarengatik, barne hartuz, ereiteko lurren galera, basoen galerak edota larreen galeragatik eta irteera profesionalengatik, hau da, formatuak dauden gazteen migrazioa estatu industrializatuen lan indarren galerak betetzeko (Harold, 2013).

Ikusten denez, Grijelmo eta Biztanleriako Nazio Batuen Funtsean kausak errepikatzen dira, haatik, nahiz eta kausa horien ezaugarriak desberdinak izan, egoera hauek guztiek ezaugarri komun bat daukate: ez dutela bidaiatzen bidaiatzeagatik, jasoak

izateko eta leku horretan kokatzeko lekualdatzen direla (Grijelmo, 2018). Ondorioz, kausa hauek aurrerago azalduko diren ondorioak sortzen dituzte mundu mailan.

Migrazioaren ondorioak herrialde hartzailean

Migrazioaren kausak, ondorioak sortzen ditu herrialde hartzaileetan. Immigranteei buruzko aurreiritziak daude natiboen artean. Gizarte natiboak pentsatzen du immigranteek langabezia tasa igotzen dutela, zerbitzu sozialen borroka dakartela, soldataren beherakada sortzen dutela, gaixotasunak ekartzen dituztela, ondasun higiezin/higigarrien prezioak apaldu egiten dutela eta biolentoak direla. Dustman, Frattini eta Glitzentzat kontu handiko ebaluazioak egin behar dira migrazioaren efektuaren orokortzeak ekiditeko (Gómez, 2010).

Immigrazioa dagoen estatuen produktibitate maila kontuan hartuz, lanpostuen eskaintza oinarri izanda maila positiboa dago. Immigranteek aberastasunak sortzen dituzte egiten duten lanaren bitartez. Gainera, kontribuzio fiskalak eta parafiskalak egiten dituzte, eta segurantza sozialari ere Espainian, Ingalaterran eta Estatu Batuetan egindako ikerketa desberdinen arabera (Gómez, 2010). J. L. Simon ekonomistaren arabera, immigranteek gogor lan egitera eta aurreztera jotzen dute, joera handia daukate berriztera eta negozioak egitera langile natiboekin konparatuz; sexu, adina eta hezkuntza maila berdina izanda ere. Beste herrialde batera joaten den jendea ez da laguntza eske geldirik egoten den horietakoa (Olivares, 2014).

Gizarte-zerbitzuen arloan, hasiera batean posiblea da immigranteek gehiago eskatzea instalazioaren fasean aurkitzen direlako eta behar handiak dituztelako baina denbora pasatu ahala zergadun garbiak bihurtzen dira. Gainera, enpresariak bihurtu daitezke eta beraien asmaketa gaitasuna garatu ahal dezakete (Gómez, 2010). Immigranteak biztanleria espainiarraren % 12,2a dira eta gizarte-zerbitzuen %6,8 hartzen dute soilik, beraz, gastatzen dute dagokiena baino gutxiago (Playa eta Heredia, 2011).

Immigrazioaren kontra dagoen beste argumentu bat, biztanleriaren kopurua handitzen dela eta dauden errekurtsoen aurrean desoreka sortzen dutela, ondorioz, txirotasunerako bidea ekarri ahal duela horrek, hau da, “asko garela” dauden errekurtsuekin konparatuz. Argudio hau falazia bat da, izan ere, estatu hartzaileak; orokorrean garapen handiko estatuak dira, jaiotza-tasa oso baxuak eta biztanleriaren zahartze maila altua dute. Gainera, Simónek (in Gómez, 2010) esaten du, geroz eta

jende gehiago dagoenean, depositu berriak aurkitzeko eta produktibitatea igotzeko adimen gehiago dagoela, lehengaiekin edota beste ondasun guztiekin.

Migrazioaren ondorioak jatorrizko herrialdean

Beste aldetik, jatorrizko herrialdetan iritzi desberdinak daude, kasu honetan, jendearen balorazioa positiboa da hezkuntza, prestakuntza eta atzerrian bizitako bizipenen mailagatik eta lekualdatzen diren pertsonen egoera ekonomikoa hobetzen duelako, hala ere, kapital sozial nazionalaren galera dakar. Bestalde, desoreka erregionalak gertatzen dira migrazio tasa altuak dauden lekuetan. Leku hauetan, presio demografikoak, langabezia, desberdintasun erregionalak, eta kostu sozialak daude, Azken hauek, desegituraketa familiarrengatik gertatzen dira, eta honek, banaketak, bortxaketen tasa igotzea, drogen kontsumoa, eskola-porrota eta abar dakartzate, hau da, kontrol falta sortzen da leku horietan. Beraz, errefortzu polizialak, hezkuntza planak eta birgizarteratze planak egin behar dira eta kostu ekonomikoak ekartzen du horrek (Gómez, 2010). Beraz, emigrazio tasa handia dauden herrialdeen egoera desegonkortzen da.

Gerta daiteke emigranteak bere jatorrizko herrialdeetara bueltatzea. Hori gertatzen denean bizitza ekonomikoan aldaketa garrantzitsuak ekar ditzakete beraiek ekarritako esperientzia eta gaitasunen pilaketagatik. Etorrera guzti horiek estatu horren egoera hobetu dezake, adibidez, bigarren mundu gerraren ondoren Italiatik Alemaniara bueltatu zen jendearen kasua (Gómez, 2010).

Etorrera hauek ondasunen sarrerak handitzen dituzte, gainera, ekintzak egiteko ideia eta modu berriak sortzen dira. Hala ere, etorrera asko suertatzen badira eta jatorrizko herrialdean lan egiteko aukera gutxi badaude desegonkortasuna suertatu daiteke herrialde horren egituraketan. Adibidez, migratzaileak kanporatzen dituzten herrialdeen ondorioz, Kuwaitera eta Iranera jende migratzaileen pilaketa bat egon zen Golkoko gudan 1990. urtean. Horrek, langabezia tasa handia sortu zuen (Gómez, 2010).

Aurrekoa barne hartuz, Izquierdok (2011) adierazi zuen itzultzen den migrantea, bere jatorrizko herrialdera bueltatzen den pertsona dela eta han geratzeko asmoarekin egiten duela kanpoko herrialde horretan denbora asko eman ondoren. Hori guztia borondatez edo behartuta izan daiteke. Borondatez bada, Espinosak (1998) helarazi zuen herriminagatik edota hartutako herrialdean integratuta ez sentitzearen sentimendu hori dela eta, bueltatzen direla migrante batzuk bere jatorrizko herrialdeetara. Dena den, migrante askok sozietate berrian daukaten konpromisuengatik eta bueltatzekotan bizi

kalitate ona izateko aukera urriengatik erabakitzen dute ez bueltatzea (Mestries, 2013). Aldiz, behartuta bada, herrialde horren egoera dela eta edo kanporatuak izan direlako suertatzen da.

Ikasle migratzaileen egoera

Migratzaileen artean adingabeko haurrak daude eta egoera desberdinetan lekualdatzen dira. Badaude bere gurasoekin edo guraso batekin migratzen dutenak. Horietako familia asko baztertuta sentitzen dira eta kasu askotan pobrezia maila altua dute. Egoera txarrenetan dauden migrante familiak, dokumentaziorik gabe bizi direnak dira, izan ere, oinarrizko zerbitzuen eskubiderik gabe daude, gainera beldurrarekin bizi dira herrialde berritik kanporatuak edota giltzapetuak bukatu ahal dutelako. Egoera hauek haurraren ongizatea baldintzatzen dute eta haien osasun fisikoa eta mentala okertzeko arriskua dago. Oinarrizko zerbitzuen eta bizitza duin baten gabeziak haurraren garapen potentziala era negatiboan baldintzatzen du (Collantes. S, 2014).

Familiar batekin migratzen dutenen egoera aztertu ondoren, bakarrik bidaiatzen duten haur migratzaileen egoera aztertuko dugu. Bakarrik migratzen duten haurrak gizakien traten biktimak izan ahal dira, mota guztietako indarkeria jasateko arriskua dute edota mafien edo beste indibiduo batzuen eskuetan erori daitezke beraien bizitzak arriskuan jarriz. Beste batzuek hilabete batzuk dituzte eta horietako asko desagertu egiten dira. Gerratik edo muturreko biolentziatik ihes egiten duten haurrak lekualdatzen dira ere. Bizi izan duten esperientziagatik larrituta etortzen dira, gainera, babes-etxe bat eta babesaren eskubidea izateko arazoak dituzte. Tramiteak oso luzeak dira eta ez daude haientzat egokiturik. Dena den, jatorrizko nahiz hartzailea den herrialdean geratzen badira bizitza erraza izateko aukerak murrizak dira (Collantes. S, 2014).

Hezkuntza arloan sartuz, Ararteko erakundeak (2011) esaten duen bezala, gaur egun ikastetxe askok edo ia denek dauzkate beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleak, nahiz eta oso proportzio desberdinetan izan. Hain zuzen ere, gehienbat gai hauen gaineko eztabaida izan da gizartean: ikastetxearen arabera ikasleak oso modu desberdinean banatuta daudela eta gehienbat edo ia bakarrik ikasle etorkinentzat diren ikastetxeak Europako beste herrialde batzuetan gertatu den bezala gertatu daitekeela.

Horren ildotik, Euskal Herriko migratzaileen seme-alabak eskola batzuetan pilatzen dira eta arazo hori bizi-bizi dago zentroen artean. Sareen arteko desorekari ez ezik, sare bakoitzaren barruko egoerari ere begiratu dio Eskola Kontseiluak, eta

desoreka gehiago sumatu ditu: «Pilaketa egoerak». Hizkuntzaren aldetik, D ereduko matrikulazioa igotzen ari da migratzaileen umeen artean, eta bat dator jada Haur Hezkuntzan (Goikoetxea 2018). Datu hauek kontuan hartuz, bazterketa eta marjinazioa egungo errealitate bat dela esan daiteke, hau da, segregazioa egungo sareen errealitate bat da.

Nola tratatu migrazioaren prozesua eskolan

Gutxiengo etnikoaren presentzia errealitate bat da eta hezkuntzako agente guztientzat, autoritatearentzat eta formaziozko irakasleen kasuan adierazgarria izan behar du. Ez du balio jada, irtenbide puntualak izatea arazo zehatzei momentu zehatz batean aurre egiteko. Egungo egoerak aldatu behar du hezkuntzan lan egiten duten pertsona guztien pentsamendua, horrela, kultura-artekotasuna errealitatea dela aintzat hartuko da. Beraz, ezin da hezkuntza proiektu bat garatu gutxiengo etniko baten parte diren ikasleak kontuan hartu gabe. Kultura-artekotasunak bazterketa deuseztatu behar du eta oinarrizkoa den zeharkako ardatz bat bihurtu behar da (Fernández, 2004).

Vigotskyren (in Arrona, 2012) ikuspegitik, Gizakiaren garapena bitartekaritzaren bidez ulertzen da. Honek akulturazioaren prozesua inplikatzeko du banakakoak kulturalki eta sozialki hartzen dituen ezaugarriengatik. Honen ildotik, Vigotskyk eta Colek (1979) adierazten dute prozesu honek haurren plano soziala eta indibidualaren garapena baimentzen duela non sozietatean eta kulturaren bizitzeko gaitasunak ikasten duten (Arrona, 2012).

Eusko Jaurlaritzak egindako ikasle immigranteen atentziorako programak (2003) adierazten du kohesio sozialaren printzipioa bermatzeko, kultur aniztasunean oinarritutako hezkuntza behar dela, hau da, aniztasunarekiko errespetua eta berdintasuna. Haur eta gazte ikasle immigranteen hezkuntzan, kasu askotan egoera sozial erdeinatu batean bizi dira eta eskolak hau gainditu behar du, horretarako, hainbat ezaugarri hartu behar dira kontuan: Errefortzu linguistikoa, arrakasta eskolarra bultzatu, kultura desberdinetako pertsonak hezkuntzan inplikatu, familia minoritarioen arteko elkarrizketak/harremanak bultzatu, jarrera zapaltzaileen aurrean erne egon eta aldaketetan lan egin eta aniztasun kulturalen arteko liskarrak elkarrizketaren bitartez konpontzea.

Programa honekin jarraituz, lehen esandakoaz aparte ikasle immigranteak taldean dagoela ikusi behar du, estimatua sentitu behar da bere kultura eta baloreak bezala. Beraz, Vigotskyk aipatzen duen akulturazioa ekiditeko beharrezkoa da beste

kulturen edukiak Curriculumean sartzea, ekintza didaktikoetan beste kulturen elementuak esleitzea, eskolaren bizitzan beste kultura eta hizkuntzen ezaugarriak presente egotea, kultura gutxituen sarbideak erraztea eta kulturen arteko elkarriketa kritikoa ezartzea.

Programa honen xedeak ikasleriak jarraitzen duen Curriculum berdinerako sarbidea izatea, hizkuntza ofizialen ahozko eta idatzizko kontrola eta ingurune sozial eta eskolarrean autonomia pertsonalaren lorpen progresiboa izatea dira. Hau lortzeko neurri hauek hartuko dira: ikasleriaren behar linguistiko eta hezigarrien diagnostikoa burutzea, ikasleria immigrantearen eskolatzeko egokia eta azkarra erraztea, behar hezigarriak eta linguistikoak asetzea adaptazio kurrikularra edo errefortzu kolektibo edota indibidualen bidez, autoktonoak diren ikasleak immigranteak diren ikasleei berdinak direla adieraztea eta berdintasunean hezteko indutzea eta desberdintasun kulturalen arteko integrazioa erraztea.

Zein eragin izan du migrazioak haur eta gazte literaturan?

Migrazioaren gaia helduen gai bat dela uler daiteke, hala ere, haur eta gazte literatura ez da exodoaren esperientziarengatik kanpoan geratu. Kontakizun asko bidaiak dira non gazteak eta haurrak aurre egin behar dieten babesgabetasunari, abandonuari eta erbesteari. Obra hauek, migratzen eta desintegratzen den haurtzaroari buruzko irudikariak dira, beste espazio batean jaiotzeko, guztiz berria dena nobedadez egina, baina nostalgiaz, beldurrez eta ezjakintasunez sortua (Egaña, 2015).

Aurrekoarekin bat eginez, Euskal Herria mailan argitaletxe askok nahi dute gazte eta haur literaturaren munduaren bitartez beste errealitate batzuetan sartzea eta horiek transmititzea. Haien katalogoetan mestizajea sozietatean, emigrazio masiboa eta aniztasun kulturalaren fenomenoaren gaitetza txertatzen ari dira. Dena den, P. Zubizarretak 2008ko Haur Literaturaren Biltzarrean hau helarazi zuen: "kontuz ibili behar dugu hainbeste irakurketa bideratuarekin, literaturaren funtzionalitatearekin, gure eskemak proiektatzearekin, onkeria edo humanismoarekin; askotan, pasibotasuna eta konformismoa besterik ez dugulako lortzen. Haur literatura xumetasunarekin lotuta dago, baina konplexutasunarekin ere lotuta egon beharko luke. Gure ardura da azterketa zorrotza egitea, eta horretarako bildu gara" (Anso, 2015). Beraz, beste errealitate batzuk islatu nahi badira, ezin da konformismoan erori, ezin da ahaztu idazten dena literatura dela.

Lehenagoko kapituluak aipatu den Eusko Jaurlaritzak egindako ikasle immigranteen atentziorako programan zentratuz, Haur eta Gazte Literatura erreminta ezin hobea da. Haur eta gazte migranteen egokitzapenerako instrumentu egokia da. Ilustrazioek eta istorioek aurretik izan duten egoera ezagutzera errazten dute eta haien etxebizitza galtzearen eta bizi berri bat lortzearen dualismoaren emozio eta sentimenduak islatzeko baliagarria den erremintak dira. Errespetua, enpatia, solidaritatea, ausardia eta ezbeharrak gainditzeko baloreak dira obra hauek duten ezaugarriak. Horrela, irakurleek bizi duten egoera berriaren inguruko kontzientziazioa lortzen dute eta besteekin erlazionatzeko moduen berri ematen dute. Beraz, balore desberdinen edota berdinen onarpena eta pertsonen arteko eta sozietateen arteko gogoetak egiteko, horrelako obrak integrazio eta inklusiorako ikasketa sozial eta afektiborako abiapuntu dira (Egaña, 2015).

Nola eta zer agertu da haur eta gazte literaturan?

Antzinako kulturek, inprenta asmatu baino lehen, ez zioten haurrari espazioa utzi, heldua zen erdigunea. Dena den, Erdi Aroan haurrentzako liburu gutxi batzuk idatzi ziren, hala nola, Don Juan Manuelren *El Conde de Lucanor*. Liburu hauek haur konkretu batzuentzat ziren noble edo erregeen mandatuak. 400 urteko periodoan inprentaren asmakuntzarekin 1440. urtean eta liburuak erreproduzitzeko aukerarekin, haurrentzako liburuen agerpenak hasi ziren eta autoreen artean, garrantzitsuenak Grimm anaiak eta Andersen (Cerrillo, 2015).

XVII. mendean literaturak bi asmo zeuzkan; batetik, literatura pedagogikoa eta bestetik, literatura moral edota erlijiosoa. Mende horren amaieran, Perraultek argitaratu zuen *Perraulten ipuinak*, non agertzen diren *Erpurutxo*, *Katu botaduna*, *Loegile ederra* eta abar. XVIII. Mendean haurtzaroa aldatu egin zen burgesiaren agerpenagatik (klase sozial bezala) eta iraultza frantsesaren ondoren, honek hartu zuen boterearen ondorioz. Honi esker, haurra familiaren funtsezko elementu bezala hartu zen, beraz, literatura garrantzia hartu zuen baina modu didaktiko batean, dena den, mende amaieran autore batzuek, John Lockek bezala, esaten zuten irakurtzen ikasi ondoren gozatzeko liburu atseginak behar zituztela (P.C. Cerrillo, 2015).

XIX. mendean erromantizismo garaian hasi zen tradizio popularraren ikasketa eta interes literarioa, honek guztiak, folklore nazionalari bizia eman zion. Mendearan erdian errealismoa agertu zen, honekin batera, Lewis Carrollen *Alizia herrialde miresgarrian* argitaratu zen. Liburu hauek burgesia txikia eta erdi klaseko tematika

aurkezten zuten non, haien arazoak, ametsak eta ilusioak agertzen ziren. Garai honetan didaktismoa gainditu zen (Cerrillo, 2015).

XX. mendeko 60ko Hamarkadan Europan garatutako Haur Literaturaren korrante berriak errealismoaren garapena ekarri zuen eta tematika sozialak, magikoak edota kritikoak agertu ziren. Garai honetan, umearekiko babes jarrera horren bazterketa egon zen errealitatearen aurrean. Beraz, Haur eta Gazte literaturan gatazka sozial eta pertsonalak barne hartzen ditu.

Gaien zabalkundeari esker heriotza, arrazismoa, askatasuna, ekologia, banaketak, sexismoa, ezgaitasunak, migrazioa eta abarreko gaiak agertzen hasi ziren. Gai hauen ondorioz, minaren eta gatazken ezkutaketa sorrarazten hasi zen. 70eko hamarkadan, errealitatearen eboluzio bat planteatzen da; ikuspuntu kolektibo eta borrokalari batetik (feminismoa, baketasuna eta abar) pertsonaren eta gatazka indibidualen arretari lekualdatuko da (bakartasuna, gaixotasuna eta abar). Aurretik azaldutako guztiaren xedea gatazkak konpontzeko gaitasunak handitzea da.

METODOLOGIA

Lehen aipatu ditugun helburuak kontuan hartuz, ikerketa gauzatzeko marko teorikoa azalduko dugu. Behin teoria izanda aukeratu ditugun obra literarioak aztertuko ditugu. Horretarako fitxa bat prestatu dugu (ikus eranskina I). Fitxa horretan aurretik egindako marko teorikoarekin bat datorren item desberdinak aztertuko ditugu. Azterketa gauzatzeko bi corpusetan oinarrituko gara:

- Lehenengo corpusean migrazioarekin zerikusia daukaten hogeita bost obra literario aukeratuko ditugu (ikus eranskina II). Hauek aukeratu ondoren, fitxa baten bidez aztertuko ditugu (ikus eranskina IV).
- Bigarren corpusean zoriz aukeratutako hogeita bost liburu aukeratuko ditugu (ikus eranskina III). Hogeita bost liburu horien artean migrazioaren gaia agertu daiteke ala ez, horiek aztertuko ditugu aurretik aipatutako fitxa berdinarekin (ikus eranskina IV).

Arestian aipatutako fitxan, liburuaren datuak eta marko teorikoan azalduko teoriarekin bat datozen hamabi item daude:

- Obraren migrazioaren lanketa.
- Migratzailea den pertsonaia nagusiaren egoera.
- Egoera familiarra.
- Azalaren kolorea.
- Zein den bere adina.
- Migratzailearen maila ekonomikoa.
- Istorioan zehar lagunak agertzen diren ala ez.
- Egoera emozionala.
- Zailtasunak dituen ala ez.
- Jatorria.
- Migrazioaren kausa.
- Generoa.

. Item horietan eta teorian oinarrituz sei hipotesi atera ditugu. Hipotesiak bi multzotan banatu dira corpusaren arabera.

- Lehenengo multzoan bi corpusak hartuko dira kontuan eta corpus bakoitzak bere azterketa izango du:
 - Familia batekin bizi diren immigranteak izango dira obren pertsonaia nagusi gehienak.
 - Azalaren kolorea iluna daukaten gazteak izango dira obren pertsonaia nagusi gehienak.
 - Jatorri afrikarra dituzten eta ekonomiko baxua daukaten pertsonaia nagusiak izango dira.
 - Zailtasun psikologikoak dituzten eta triste bizi diren mutilak izango dira.
 - Lagunak dituzten gudaren migratzaileak izan izango dira.
- Bigarren multzoan bigarren corpusean oinarriturik hipotesi bat dago:
 - Bigarren corpusean oinarritutako liburuen artean ez da agertuko migrazioaren gaiarekin zerikusia duen obra literario bat.

Bi corpusetako berrogeita hamar liburuen fitxa bete ondoren, fitxaren barruan dauden item bakoitzaren emaitzak aipatuko ditugu grafikoak interpretatuz. Behin emaitzak izanda, ondorioak aterako ditugu lehen aipatutako hipotesiekin konparatuz. Ondoren, ondorio orokorrak azalduko ditugu. Azkenik, hobekuntza proposamena egingo dugu.

EMAITZAK


Lehenengo corpusa:

Lehenengo corpus honetan migrazioaren gaia agertzen diren aukeratutako obra guztien ($Z=25$)¹ azterketa fitxa egin ondoren (ikus eranskinak IV 1. corpusa), atera diren emaitzak helaraziko ditugu.

¹Z=Liburu kopurua.


Egoera migratzaileari dagokionez, aztertutako pertsonaia migratzaileen %88a (Z= 22) immigranteak dira, emigranteen kasuan, aldiz, %12 (Z=3).

Migratzailearen egoera




Egoera familiarrari erreparatuz, %56a (Z=14) ez dira bakarrik bizi, familia batekin bizi dira eta %44a (Z=11) familiarik gabe. Beheko grafikoan ikus dezakegunez, lehenengo corpusean azertu ditugu obra guztietan pertsonaiak daukaten egoera familiarra zehazten da.

Egoera familiarra




Azalaren kolorean murgiltzen bagara, grafikoan ikus dezakegu pertsonaia migratzaileen artean gehienek azala iluna daukatela %64 batekin (Z=16) eta %24 (Z=6), aldiz, azal argia. Dena den, %12 (Z=3) obren kasuan, ez da azalaren kolorea zehazten.

Azalaren kolorea




Migratzailearen adina aztertu ondoren, obra gehienetan pertsonaia gaztea da %52 batekin (Z=13). Pertsonaia helduen kasuan, obra guztien % 24ean agertzen dira (Z=6) haurren kasuan bezala. Bestalde, grafikoan ikus dezakegunez, obra guztietan pertsonaien adina zehazten da.

Migratzailearen adina




Maila ekonomikoa kontuan hartzen badugu, istorio gehienetan gabeziak dauzkate arlo ekonomikoan %52ko ehunekoarekin (Z=13). Maila ertainari dagokionez, obra guztien %28aren kasuan (Z=7) agertzen da. Jarraitzeko, lehenengo corpusean ez da agertzen maila ekonomiko altua duten pertsonaiak. Azkenik, aipatzekoa da ez dela beti maila ekonomikoa zehazten, izan ere, obra guztien %20aren kasuan ez da agertzen (Z=5).

Maila ekonomikoa




Istorioan agertzen den pertsonaia migratzailearen lagunen agerpena ikertu ondoren, grafikoan ikus dezakegu gehienetan lagunak dituztela %76ko ehunekoarekin (Z=19). Hala ere, obra guztien %24aren kasuan, ez dira istorioan zehar lagunak agertzen.

Obran zehar lagunen egoera




Egoera emozionalaren kasuan, pertsonaia guztien artean gehiengoak momentuaren arabera egoera emozionala dauka %44 batekin (Z=11). Jarraitzeko, liburuen %32a triste bizi diren pertsonaiak dira (Z=8). Hala ere, lehenengo corpusean agertzen dira pozik bizi diren pertsonaiak %24koarekin (Z=6). Azkenik, esan beharra daukagu obra guztietan zehazten dela pertsonaiaren egoera emozionala.

Egoera emozionala




Pertsonaien zailtasunen arloan sartuz, aztertutako istorioetan agertzen diren migratzaile gehienek zailtasunak dauzkate %84arekin (Z=21) eta %16ak arazoak ez dituzten pertsonaiak adierazten du (Z=4).

Zailtasunak




Zailtasunak dituztenen artean (Z=21) mota desberdinak dituzte. Horietatik %32a arazo psikologikoak jasaten dituzten pertsonaien kasuak dira (Z=8), % 19a arazo fisikoak (Z=4), %10 arazo psikologikoak eta fisikoak dituztenak dira (Z=2) eta %33a beste arazo mota batzuk dituztenak (Z=7). Beste motatako zailtasunak dituzten obren artean, *Omar dendaria* obran adibidez, paperak lortzeko arazoak ditu pertsonaia migrante nagusiak.

Zailtasun motak




Aztertutako pertsonaien jatorriari erreparatuz, emigrazioa eta immigrazioa agertu da. Immigrazioaren kasuan, %64a Afrikatik beste herrialde batera lekualdatu diren pertsonak dira (Z=16). Asiatik immigratukoaren artean soilik *Azadah* obran agertzen da %4 batekin (Z=1). Emigrazioaren kasuan, aldiz, Euskal Herritik emigratu duten pertsonaia obra guztietatik %16ari dagokio (Z=4). Bestalde, ez dira agertzen grafikoan agertzen ez den beste jatorri bat daukaten pertsonaia eta %16an ez da zehazten zein den pertsonaia migratzailearen jatorria.

Jatorria




Migrazioaren kausari dagokionez, gehiengo kasuetan ez da zergatia zehazten %48a hain zuzen ere (Z=12).

Migrazioaren kausa



Grafikoa ikusita esan dezakegu aztertutako liburu guztietan generoa zehazten dela. Ehunekoei erreparatuz, %56ko migratzaileak neska dira (Z=14) eta %44a mutilak (Z=11).

Generoa




Bigarren corpusa

Bigarren corpusean zoriz aukeratutako liburu guztien (Z=25) azterketa egin da (ikus eranskinak IV 2. corpusa) eta atera diren emaitzak azaleratuko ditugu.

Migrazioaren lanketari dagokionez, aztertutako liburu guztien (Z=25) artean %80ak ez du migrazioaren gaia lantzen (Z=20). Gainontzeko obretan (Z=5) migrazioa istorioaren parte da liburu guztien %20arekin.


Migrazioaren lanketa



Ikusita aztertutako liburu guztien (Z=25) artean %20a migrazioaren gaia lantzen dutela, beheko grafikoen interpretazioa migrazioa lantzen duten obra literarioetan zentratuko gara (Z=5).


Migratzailearen egoerari erreparatuz, esan dezakegu liburu guztietatik (Z=5) %100 Immigranteak direla. Beraz, bigarren corpus honetan ez daude emigratioa lantzen duten liburuak.

Migratzailearen egoera




Egoera familiarra aztertuz, aztertutako obren %60a familiarekin bizi diren pertsonaiei dagokio (Z=3) eta familiarekin bizi ez diren migratzaileen kasuan %40a (Z=2).

Egoera familiarra




Azalaren kolorean murgilduz, ikus dezakegu pertsonaia gehienek azalaren kolorea argia daukatela %60 (Z=3). Azalaren kolore iluna duten pertsonaien portzentaia, aldiz, %20koa (Z=1) da. Bestalde, esan dezakegu %20an (Z=1) ez dela azalaren kolorea zehazten *Hiru Bidelapurrak* obra literarioaren kasuan.

Azalaren kolorea




Adinaren arloa ikertuz, %40an ez da zehazten (Z=2). Zehaztuta dauden obretan, %40a haurren kasuari dagokio (Z=2) eta %20a gaztea den pertsonaiari dagokio (Z=1). Bestalde, bigarren corpus honetan grafikoan ikus dezakegunez ez dago helduen presentziarik.

Migratzailearen adina




Maila ekonomikoa kontuan hartzen badugu, liburu gehienetan ez da zehazten %40 batekin (Z=2). Zehaztuta dauden obretan %20 gabezia ekonomikoaren arloari dagokio (Z=1), maila ekonomiko ertainaren kasuan %20 (Z=1) eta maila ekonomiko altuari dagokionez %20a (Z=1).

Maila ekonomikoa




